

«Geu ere animalia» mikroipuin antiespezisten lehiaketarako oinarriak

Bases para el Concurso de microcuentos antiespecistas «Geu ere animalia»

[EUS]

Desberditasun estruktural eta sozioekonomikoen areagotzearen aurrean eta krisi klimatikoaren ondorioak direla eta, gaur egun pentsamolde berriak proposatzen ari dira, hain zuzen, gizakiak beste izaki guztien gainetik jartzen dituen antropozentrismotik haragokoak. Pentsamolde horien artean, beste animaliekin ditugun harremanen inguruko hausnarketa nabarmentzen da, espezieen arteko berdintasun moralean oinarritutako harremanak sortzeko beharra dela eta. Horretarako, Animalia Ikasketa Kritikoak (AIK) taldeak eta Hordago *El Salto*k, Hordago bekaren bitartez, ideia antiespezistak zein ez antropozentristak edota utopia ez espezistak oinarri hartzen dituen mikroipuin lehiaketa bat antolatu dugu.

Oinarriak

1. **Nori zuzendua:** Literatura antiespezistan interesa duen edozein pertsonari zuzendua dago lehiaketa. Ez da beharrezkoa ipuin idazketan esperientzia izatea.
2. **Gaia:** Lehiaketaren gai nagusia gizakiok gainontzeko animaliekin ditugun harremanak dira. Proposatzen diren mikroipuinak elkarreragin eta sistema hauek hainbat ikuspuntutatik irudikatzeko aukera izango dute: egungo egoera eta sistema zapaltzaileen kritika eginda, animalien ikuspuntua lantzen duten idazkera teknikak, eta abar, betiere, gai orokorrari buruz hausnartzeko xedearekin.
Gai eta ideia gomendioak:
 - Abeltzaintzaren industria eta animaliak elikagai gisa erabiltzea
 - Animalien zapalkuntza aisialdirako
 - Animalien esplotazioa modaren industriadarako
 - Gizakiaren eta gainontzeko animalien arteko etorkizun sostengarriak
 - Animalien bidezko esperimentazioa
 - Animaliak eta Euskal Herriko tradizioak
 - Animalien sentimenduak, pertzepzioak eta emozioak ikuspegi ez antropozentrikotik
 - Tematika orokorraren barne sartzen den beste edozein gai
3. **Ezaugarri formalak:**
 - Luzera: 2.000 karaktere gehienez, espazioak barne eta izenburua kontatu gabe.
 - Hizkuntza: mikroipuinak euskaraz eta gaztelaniaz onartuko dira eta batera balioetsi, hizkuntza edozein dela ere.
 - Letra-tipoa eta tamaina: Times New Roman, 12.

- Lerroarte: 1,5.
- Parte-hartze bakarra onartuko da pertsona bakoitzeko.

4. Bidaltzeko modua:

- Mikroipuina aik.koordinazioa@gmail.com helbidera bidali behar da, “Mikroipuin lehiaketa” gaiarekin.
- Mezuari bi PDF atxikitu behar zaizkio:
 - i. Bata, mikroipuinarekin eta izenburuarekin.
 - ii. Bestean honako informazio hau jarriko da: mikroipuinaren izenburua, eta egilearen izen-abizenak eta helbide elektronikoa (irabazle izatekotan harremanetan jartzeko).
- Ipuinak bidaltzeko azken eguna: 2025eko maiatzaren 31.

5. Sariak: Lehiaketak bost sari eskainiko ditu epaimahaiaren baloraziorik handiena duten mikroipuintzat.

- 1. saria: UIK-ko “Animalia Etika eta gizartea: Ikasgeletan bidegurutze teorikoak eta aplikazio praktikoak hausnartzen” ikastarorako matrikula (87 euroko balioa duena) (Hordago beka)
- 2. saria: Pack antiespezista NOR kolektiboaren eskutik.
- 3., 4. eta 5 sariak: Liburu sorta Animalistak kolektibo antiespezistaren eskutik.

6. Irabazleen sari-banaketa:

- Lehiaketa ebatzi ostean, AIK taldea helbide elektroniko bidez jarriko da harremanetan irabazleekin, sari-banaketa antolatzeko.
- Sari banaketa ekitaldia eta emaitza publiko egitea “Animalia Etika eta gizartea: Ikasgeletan bidegurutze teorikoak eta aplikazio praktikoak hausnartzen” ikastaroan egingo da publiko, hau da, AIK taldeak UPV/EHUrekin eta UIKrekin batera antolatutako ikastaroan, ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean Donostiako Miramar Jauregian.
- Sariak “Animalia Etika eta gizartea: Ikasgeletan bidegurutze teorikoak eta aplikazio praktikoak hausnartzen” UIK-ko udako ikastaroko sari banaketa ekitaldian banatuko dira.

7. Epaimahaia eta ebaluazio irizpideak:

- Mikroipuinak baloratzeko epaimahaia literatura konparatuan eta ikasketa literarioetan espezializatuak diren AIK-ko kideek eta Animalia Etikoan adituak diren kolaboratzaile batzuek osatuko dute.
- Halaber, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:
 - i. Gaiaren egokitasuna lehiaketarekiko.
 - ii. Literatur kalitatea.
 - iii. Originaltasuna narrazioaren egituran eta koherentzian.
 - iv. Estiloa eta sormena.

8. Egile eskubideak eta mikroipuinaren argitaratzea:

- Lehiaketa honetan parte hartzeak haren oinarriak onartu izana dakar. Egileak bere lanaren eskubideak CCBY-SA 4.0 lizentziaren arabera lagako ditu, AIK eta Hordago *El Salto* lana euskarri fisiko edo digitaletan (haien sare

sozialetan eta webguneetan) partekatzeko eta moldatzeko eskubidea izango du, egilea eta lizentzia mota aitortuz.

- Saritutako ipuinak euskarri fisiko eta/edo digitalean (AIK taldearen eta Hordago *El Salto*ren sare sozialetan eta webguneetan) argitaratu ahal izango dira, beti ere egiletza aitortuta.
- Lehiaketara aurkeztutako ipuinak, irabazle suertatu zein ez, euskarri fisiko eta/edo digitalean erabili ahal izango dira “Antropozentrismoa nola saihestu literaturan eta idazmen kreatiboan”, betiere euren egiletza aitortuta eta hezkuntza helburuetarako.

Zalantzarik baduzu, idatzi aik.koordinazioa@gmail.eus helbidera.

[ES]

Bases para el Concurso de microcuentos antiespecistas «Geu ere animalia»

Frente al aumento de las desigualdades estructurales y socioeconómicas y las consecuencias de la crisis climática, en la actualidad se están proponiendo nuevas formas de pensamiento que tratan de ir más allá del antropocentrismo. Entre ellas, destaca la reflexión sobre nuestra relación con los demás animales, incluyendo la necesidad de crear relaciones basadas en la igualdad moral. El grupo Animalia Ikasketa Kritikoak (AIK) y Hordago *El Salto*, a través de la beca Hordago, han organizado un concurso de microrrelatos que reflejen ideas antiespecistas y antropocéntricas o utopías no especistas.

Bases:

1. **A quién está dirigido:** A cualquier persona interesada en la literatura antiespecista. No es necesario tener experiencia en la escritura de cuentos.
2. **Tema:** El tema principal son las relaciones que tenemos los seres humanos con otros animales. Los microrrelatos propuestos tendrán la oportunidad de interactuar y representar estos sistemas desde diferentes perspectivas: criticando la situación actual y los sistemas opresores, experimentar a través de técnicas de escritura que trabajen desde el punto de vista animal, etc.; siempre teniendo la reflexión sobre la temática como objetivo.

Sugerencias de temas e ideas:

- La industria ganadera y la utilización de los animales como alimento
- Crueldad animal en la industria del entretenimiento
- Explotación animal en la industria de la moda
- Futuros sostenibles entre humanos y otros animales
- Experimentación animal
- Animales y tradiciones de Euskal Herria
- Sentimientos, percepciones y emociones animales desde una perspectiva no antropocéntrica
- Cualquier otro tema que se adecúe al tema general

3. Características formales:

- Longitud: un máximo de 2000 caracteres, incluyendo espacios y sin contar el título.
- Idioma: los microcuentos se admiten en euskera y castellano, y se evaluarán juntos, independientemente del idioma.
- Tipo de letra y tamaño: Times New Roman, 12.
- Espaciado: 1.5
- Se admitirá una sola participación por persona.

4. Modo de envío:

- El microcuento se debe enviar a la dirección de correo electrónico aik.koordinazioa@gmail.com, indicando «concurso de microcuentos» en el asunto.
- En el mensaje se debe adjuntar dos documentos PDF:
 - i. Uno con el microcuento y el título.
 - ii. En el otro se indicará la siguiente información: título del microcuento, el nombre de apellidos de la autoría y un correo electrónico (para contactar con la persona ganadora).
- Último día para enviar los microcuentos: 31 de mayo de 2025.

5. Premios: El concurso contará con cinco premios para aquellos microcuentos que cuenten con las valoraciones más altas.

1º premio: Matrícula para el curso “Ética animal y sociedad: reflexionando cruces teóricos y aplicaciones prácticas en las aulas” de UIK (beca Hordago)

2º premio: Pack antiespecista por parte del colectivo NOR.

3º, 4º y 5º premios: Pack de libros, de la mano del colectivo antiespecista Animalistak.

6. Entrega de premios:

- Una vez realizada la evaluación, AIK se pondrá en contacto con los ganadores a través de correo electrónico para poder organizar la entrega de los premios.
- La entrega de premios y los resultados se anunciarán públicamente en el curso Ética animal en la sociedad; es decir, en el curso organizado por el grupo AIK con la UPV/EHU y UIK, los días 30 de junio y 1 de julio de 2025 en el Palacio Miramar de San Sebastián.
- Los premios se entregarán en el curso de verano “Ética animal y sociedad: reflexionando cruces teóricos y aplicaciones prácticas en las aulas”..

7. Jurado y criterios de evaluación:

- El jurado encargado de la evaluación de los microcuentos estará formado por miembros de AIK especializados en la literatura comparada y los estudios literarios, además de colaboradores expertos en Ética Animal.
- Se tendrán en cuenta los siguientes criterios:
 - i. Adecuación al tema del concurso.
 - ii. Calidad literaria.
 - iii. Originalidad en la estructura y coherencia de la narrativa.
 - iv. Estilo y creatividad.

8. Derechos de autor y publicación de los micropuentos:

- La participación en este concurso implica la aceptación de sus bases. El autor cederá los derechos sobre su obra bajo la licencia CCBY-SA 4.0, AIK y Hordago El Salto tendrán derecho a compartir y adaptar la obra en medios físicos o digitales (en sus redes sociales y sitios web), indicando al autor y el tipo de licencia.

“Geu ere animalia”: Mikroipuin antiespezisten lehiaketaren oinarriak



- Los relatos premiados podrán ser publicados en medios físicos o digitales (en las redes sociales y páginas web del grupo AIK y de Hordago El Salto), siempre con reconocimiento de autoría.
- Los cuentos presentados al concurso, resulten ganadores o no, podrán ser utilizados en soporte físico o digital en la sección «Cómo evitar el antropocentrismo en la literatura y la escritura creativa», indicando siempre su autoría y con fines educativos.

Si tienes dudas, escríbenos a la dirección de correo electrónico aidatzi.aik.koordinazioa@gmail.eus.